

OINATIKO TOPONIMIA EDO LEKU-IZENAK*Donostiako batzarrea, 1975-1-3**Félix M.^a Ugarte
Iñaki Zumalde*

Txosten hau Oinatiko toponimiari buruz egina dago. Bi mila ta bosteun leku-izen jaso ditugu, Udaletxean dagoen "Amillaramiento de fincas rústicas" liburutik.

Gure ustez herrian dauden gehienak hemen agertzen dira, dena dela oraindik gehiago jaso daiteke.

Leku-izen hauek 1952'ko urtean batuak izan ziren. Sail bakoitzaren jabeak eman zuan euraren berri. Hauekin sinkroniazko zerrenda bat nahi izan dugu egin, baina geroago konaturatu gara hori ez dela osoro egia. Toponimoak ekarri zutenetik, batzuek berbaz (hitzez) egin zuten deklarazioa: hori da egun erabiltzen diren bezela esanaz, baina beste batzuek esku-idatzietatik (escrituras) eta horrelakoetatik atera zituzten toponimoak. Hori dala ta ezberdintasunak (variantes) asko sortu ziren. Dena dela danak jaso ditugu.

"Amillaramiento" liburu horretan, izen batzuekin erdezko ortografia erabiltzen da, euskerazkoa beste batzuegaz. Guk oraingo euskal ortografiara itzuli ditugu danak.

Hortaz gainera beste zerrenda bat dakargu.

Bigarren hontan mila toponimo inguru: XV.garren mendean hasi eta XIX.garren mendarartekoak.

Kontzeju eta Protokolos artxiboko esku-idatzietan (dokumentoetan) batuak. Artxibo bi hauek benetan dira aberatsak honelako izenetan. Zoritxarrez XV.garren mendea baina lehenagokorik ez dago batere. Izen hauek jasoteko ehundaka dokumento pasa bear dira esku artetik, baina beharrezkoa dugu jakitea nun egoten diren gehien.

Hona hemen Kontzeju artxiboko dikumento aberatsenak:

- Herriarteko mugen bereizketa
- Herri-eta hauzo-basoen izendatzea
- Herri-basoetako egur saltzeak
- Herri-arteko pleitoak: basoak eta larrak direla ta.

Protokoloen artxiboan:

- Basoen sal-erosketak
- Testamentuak
- Baserriko ondasunen izendatzea
- Herriarteko mugaketak
- XIX.garren mendeko hauzo-basoen salketak
- Ezkontzako kapitulazioak edo konponketak.

Hauetan jaso ditugu toponimoak. Bertan dauden bezela idatzi ditugu, ezertxo ere aldatu gabe.

Toponimiak eboluzio (bilakaera) eta dinamika bat duela, hemen garbi ikusten dugu.

Alde batetik XV eta XVI.garren mendeetan agertzen diren izen asko gaur ez ditugu ikusten, galdu egin dira bidetan. Beste aldetik gaur egun toponimo gehiago agertzen dira, zergatik ote? Ez da zaila galdera honi erantzun bat bilatzea:

a) Artxiboetan ez daude izen guztiak eta egon arren, guk ez genituzke aurkituko denak.

b) XIX.garren menderarte Oinatiko lur gehienak herriarenak ziren. Mende hontan (1830 urtetik hasita) saldu egin ziren gehienak. Orduan herriko jendea sail hauen jabe egin zen eta, lehen osorik zeuden basoak banatu egin ziren.

Lehen Bacue zena, horain honela zabaltzen da:

Bakue beia
 Bakue goia
 Bakue erdikua
 Bakue kurtze
 Bakue osteko
 Bakue poto
 Bakue solo
 Bakue oste barrena
 Bakue oste erdikua

Honela zabaldu dira beste toponimo asko.

Uste dugu arrazoi hau nahiko xinplea dela, baina egia izanik bidezkoa da hemen agertzea.

Toponimoak gehiagotu edo gutxitu bakarrik ez, aldatu ere egiten dira. Hori bai, aldakuntza hau oso astiro egiten da.

Danok dakigu gaur egun gure herrian hariztiak, pagadiak, gaztainadiak etab. itoak daudela eta pinudiak direla

nagusi (orain dela ehun urte hasi ziren lehenengo pinudiak). Egoera hau ez da oraindik nabarmena toponimian. Pinua aipatzen dituzten toponimoak doenerdi baino gutxiago dira, aldiz, hariztiak, gaztainadiak etab. nun-nahi agertzen dira.

—oOo—

Toponimiazko zerrenda hauek probetxugarriak izan litezke bai linguistika eta bai historia-etnografientzako.

Linguistika alorrean garbi nabarmentzen dira fonetika-ren aldaketak, kontraziñoak eta esan-guraren (cambio en el significante y por tanto del significado) aldakuntzak. Baita ere beste berezitasun batzuek.

Hemen ikusiko ditugu:

1) Oinatiko euskalkiaren —UI ugaritasun atzizkia, XV. garren mendera orduko agertzen da.

Astui

Aranzadui

Arandui

Hardui

Arduichueta, 1780

Asundui

Hariztui

Intxaurdui

Isuskidui

Keiztui/Kerisdui

Lapurdui, 1780

Lersundui, 1775

Lindadui

Leyzardui, 1489

Mendadui, 1790

Pagadui, 1489

Pinudui

Sagastui

Sakatadui

Çacutaduy, 1577

Trailedui

Chimistui, 1675

Txori matsdui. (txori matzdui, obe. Oinatin ez dira egun bereizten /TS/ eta TZ/ soinuak.)

2) Aurreko mendeetan erabiltzen ote zen /h/ aspiratua hitzegiterakoan? Hona hemen idatziak agertzen diren biz-pairu:

		egun
		idatziz herbaz
Laharria, XVI	Naarria, XVII	Narria Larraina
Olaçaharreta, 1556		
Arostegui çaharreta, 1556		

3) Pluralizantea /ÇU/ atzizkiarekin. Harrez gero (XVI.garren mendetik aurrera) ez dira agertzen:

Arançaçu
Iraberarçu, 1489
Ollançu, 1563

4) Adierazlearen aldakuntzak:

		egun
Arrigojenaga, 1556	Arrigoenaga, 1741	Arrionaga, 1836
Arranotegui, 1597		Arrantegi
Arriçuriaga, XVII	Arrizubiaga, 1786	Artzubixaa
		Hau basearri bat dugu Berezano

hauzoan dagoena. Bere ormak harri-zuriz jasoak daude (karraitzagaz), horregaitik du izen hori.

Angelu soro, 1556		Aingeru soro
Amamurren, 1753		Amamorena
Andera çubi		Andra zuri
	Belez charal, 1790	Belein txara
		Beletxa
Beo çubilaga, 1556	Vio zubilaga, 1780	Bia zubilaga
	Bior zubilaga, 1835	Beo zubilaga
		Bide soillaga
		Biotz zubilaga
		Biu suia
		Biur zubilla
Dona Petri, 1834		Doña Petri
		Dana Petri
Gabino, 1556	Gabono, 1690	Gaboino
	Gabonu, 1772	
	Gaboñu, 1718	
Garin torre, 1556	Gañi torreaga, 1732	Gaiñ torre
Ansocoa (XVII) baserria		Auntzokoa
		egun
Garay laburra, 1564		Gaillaur
		Gaillar
Gorin biscar, 1577		Gonbizkar
		Ginbizkar

Gorrichotegui, 1762		Gorritxitxi
Pagonabarraga, 1562	Paga narraga, 1835 Pago narra, 1849	Panarra Paganar Pago narra Painar Panar
Sasabal, 1556	Zarzaval, 1767	Zarزابak

Paterretxe edo Farretxe ba dira baserri etxeak Oinatin. Ermita edo eliza inguruetan gehienak. "Frater" latinezko anaia, ermita zaindaria, hemendik izango dute hauek jatorria: Frater-etxe.

Aldakuntza hauek ez dira beti denboraren ondorioa, eskribauek ere bazituzten beren hutsak. Ikus hemen:

Arrinabarraga, 1562
Arisnabarraga, 1563
Areyz navarraga, 1577

5) S TZ-TX

Arzaen buru, 1672	Artzanburu
Arzubi, 1745	Artzubi/Artxubi/Artxui
Arriçuriaga	Artzubixaa/Artzuixa
Aunsola, 1752	Auntzola
Beguirolaça	Beilotza
Eguicolaza, 1836	Eikolatzaa
Guesalça, 1526	Gesaltza
Culaça, 1597	Sulatza
Albiçuri	Albitxui
Alcina	Altxin/Altxin

6) G K aldakuntza

Algorta, 1548	Alkorta
Gorostico munua, 1675	Korosti
Gorobizcar, 1526	Koixkar
Goroso, 1532	Koroso
Gorostola, 1534	Corostola, 1767
Ygorostondo, 1556	Icorostondo, 1767

7) Metatesis batzuek:

Bernalena (baserria)	Berlanena
Ercilla, sel, 1475	Elzi corta, 1741 Ercill corta?
Malgorra, 1556	Margola

8) Santuen izenak:

San Bartolomé de Erguña (Bartolomei)	Matromai (1)
Sant Eli, Santa Ylia (San Elías)	Sandaili (XV) (1)

Santa Magdalena Gorostola (1505)	Maala
Sancto Pelagio, 1149	Santipilao, 1577
Sanpelayo, 1530	Santipillao, 1690
	Santipillau, egun
San Jorge (Georgios)	San Jurgi (1)

9) Beste aldakuntza batzuek:

Datustegui	Latostegi
Galvarregui, 1675	Galfarregi
	Galparregi
Aguirre, 1477	Agerre
Aguirre, 1785	chipi edo chiqui erabiltzen
Celay chipieta, 1556	Ote zen?
Corta chipia, 1655	

10) Kontraziñoak:

		egun	
		idatziz	berbaz
Azalgarate, 1542		Azalgarate	Azalditta
Acuegui, XVI		Akui	Akui
Areyz muño, 1556		Hariz muino	Amiño
Ariz muño		Harizti muino?	
Astobideta, 1782		Astobita	
Albardizaga		Albardizaga	Albarritza
Belaarra, 1556		Belar	Belar
Duruaran, XVI		Duruaran	Duruan
Beguirolaça	Beguloza		Beilotza
Henada ayza, 1718		Enaitz	Enaitz
Egur luza oste, 1765		Egui luzasti	
Eyzaguirre, 1764		Eiziar edo Iziar	
Izaguirre			
Idigoras		Idigoras	Iruatz
Iditegui, 1799	Hitegui, 1840		Iitei
Urcateguieta, 1556		Urkatuita	
Uçobaco chaena, 1605	Usabaco chena		Usakotxena

Honelakoak ugari bila daiteke.

—oOo—

Linguistikatik at, toponimiak laguntza bikaina askaintzen dio historia ta etnografiari.

Guk behintzat, dato baliotsuak jaso ditugu.

— Oinatiri buruz lehen dokumentua 1.149 urtekoa da.

(1) Eritzi hauek L. Zabaleta apaiza zenak eman zituen.

Hemen leku-izen bat agertzen da inork nun zegoen ez zekiana. Baina bai toponimiak: Belacoin zen toponimoa, gaur Belascoin bezela agertzen da.

— Kortari (seles) buruz aspaldian gabiltza ikerketak eginaz. Mesede haundia egin digu toponimiak lehengo korta zaharren berri eman digulako. Honela ikerketak pauso haundia eman du aurrerantz.

— Duda barik Zubilagako "olia" garrantzi haundikoa izango zen, Gebarako jaunena bai zen.

Hauzoan zenbaterainoko inportantzia zeukan garbi ikusten da toponimian. Inguruko sail guztiek olaren referentzia dute eta bai baserriak ere:

Urzallakoa, baserria (fundidor).
 Txipitxaile, baserria (macheador)
 Olalde çabala, 1542
 Olabaso, 1741
 Olaburu
 Olaguren
 Olamo

Ola ondo
 Ola ondoko aurra
 Ola ostia
 Ola oste goiko sorua

— Mendez mende galdu diren baserriak, ermitatxoak, teileriak, harrobiak etab. oraindik agertzen dira toponimian:

Chilotegui (Torre hauzoan). Baserria zen, egun inork ez daki izan zenik. Dokumentoetan agertzen da.

Longarte (Larraina hauzoan). Baserria zen, egun inork ez daki izan zenik. Dokumentoetan agertzen da.

Leibar (Gargaltza hauzoan). Baserria zen, egun inork ez daki izan zenik. Dokumentoetan agertzen da. Gehiago ba dira.

Santa Coloma, Urrexolako ermitatxoa.

Santa Cruz eta San Bartolome, Garagaltzan.

Garay-laburgo kanterak.

Eta zenbait honelako dato.

Guk atera ditugun ondorioak lehen begirakada batean jasoak dira.

Bila dabilenak beti aurkitzen du zer edo zer. Jakina, danok ez gara gauza berdinen bila ibiltzen. Horregaitik gure asmoa, material hauek ahalik osoen eta garbien agertzea da.

Asmo hau betetzen badugu, pozik izango gara.

Donostia, 75-II-28

ATARRABI APEZA ETA PEDRO DE ATARRABIA

A. Alustiza "Aztiri"

I

Oraintsu, Pedro de Atarrabia deritzaion pentsalari eta teologilari ospetsu baten eskola-iskribuak argitara eman ditu Aita Sagüés Azcona-k; bi ale mardul eta gotorretan bildua dator dena.

Lan ikaragarria, benetan, egileak egin zuena, eta ez da txantxetakoa gure biltzaile azkarrak ondotik egin duena ere.

Esan gabe doa, nik ez dutala "DOCTOR FUNDATUS" deritzaion Maisu honen pentsakera eta doktrina hemen, aztertzeko asmorik, ezta ahalmenik ere. Geure Aita Tomas Larrañaga zerbait, bederen, mintzatu zaigu hortaz.

Nik, ordea, Aita Sagüés-ek Pedro de Atarrabia honen inguruan ematen dizkigun zenbait berri ekarri nahi nituzke "Aránzazu" hontara, gure irakurleentzat ere jakingarri ezezik, suspergarri izan daitezkeelakoan. Geroago aitortuko dugu zergatik.

Pedro de Atarrabia, frantziskotar ospetsu hau, Naparroan eta Iruine ondoko Atarrabia deritzaion Villavako hauzo batean jaioa zen, dirudienez, eta XIII. gizaaldiaren erdi aldera